BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

6275

EBAZPENA, 2011ko azaroaren 29koa, Hezkuntzako sailburuordearena, Irale programan parte hartzen duten euskaltegiei 2011ko udako eta 2011-2012 ikasturtearen lehen txandako ikasleen matrikula-gastuak ordaintzeko.

Irale programa arautzen duen 1994ko urtarrilaren 28ko Aginduak (1994ko otsailaren 11ko EHAA), Hezkuntza Sailburuordetzaz kanpoko klase-emankizunez diharduenean, honela dio bere 23. artikuluko 4. paragrafoan: Hezkuntza Sailburuordetzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian jakinaraziko du, aldiro-aldiro, ekitaldi jakin batean Irale programan parte hartzeko onartzen diren ikasketa-elkarteen zerrenda.

Eginbide hau zuzen eta garaiz burutu ahal izateko, Hezkuntzako sailburuordearen 2011ko maiatzaren 17ko Aginduak (EHAA, 2011ko ekainaren 6koa) 2011ko udarako eta 2011-2012 ikasturterako Irale programaren Hezkuntza Sailburuordetzaz kanpoko ekitaldiak (konkretuki, irakastorduz kanpokoak) jakinarazi zituen, eta beraien mamikuntzan parte hartu nahi duten ikasketa-elkarteentzako deialdia zabaldu.

Agindu horren ondorioz ebazpen bi jakinarazi ditu, biak 2011ko uztailaren 12koak (EHAA, 2011ko abuztuaren 2koa), Hezkuntza sailburuordeak: bata, Iraleren 2011ko udako klase-emankizunetan parte har dezaketen ikasketa-elkarteak onesten dituena, eta bestea 2011-2012 ikasturtean Irale programaren Sailburuordetzaz kanpoko ikastaro-emankizunetan parte har dezaketen ikasketa-elkarteak onesten dituena.

Ebazpen horiek, beren xedapen gehigarrietan, material-prestakuntza eta zenbait kasutako joan-etorri gastuak ere zehatz arauturik dituzte.

Horren guztiaren garapenez, 2011ko udako eta 2011-2012 ikasturtearen lehen hiruhilabeteko hainbat klase-emankizun burutu dute kasuan kasuko ikasketa-elkarteek. Emandako klase-emankizunak ordaintzea dagokio, beraz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari.

Hori dela-eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Ebazpen honen eranskinean zehazten diren euskaltegi eta ikasketa-elkarteei bertan adierazitako diru-kopuruak ordaintzea, 2011ko udako eta 2011-2012 ikasturtearen lehen txandako matrikula-gastuak estaltzeko.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren aurrean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta handik hilabeteko epean.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den unetik izango da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 29a.

Hezkuntzako sailburuordea,
M.ª ANTONIA OZCARIZ RUBIO.

ERANSKINA

ARABA

EUSKALTEGIA	DIRU-LAGUNTZA
Laudioko UE	1.575,90
Euskaraz Koop. E.	10.646,10
Udaberria elkartea	10.468,80
Hegoalde euskaltegia	5.047,50
Gasteiz Adur (Kultur Elkartea IKA) Gasteiz	8.289,00
Pinto Aratz-Ardatz (Kultur Elkartea IKA) Gastei:	24.480,40
Zaldiaran-Ardatz (Kultur Elkartea IKA) Gasteiz	18.901,20
Oiongo euskaltegia	941,64

GIPUZKOA

EUSKALTEGIA	DIRU-LAGUNTZA
Errenteriako UE	884,00
Hondarribiko UE	169,05
Arrasateko UE	472,70
Beasaingo UE	598,30
Eibarko UE	18.654,93
Hitzez euskaltegia S.L.-Donostia	8.888,40
Legazpi 6 euskaltegia S.L.	356,40
Gernika XXI, S.L.	9.045,00
Ilazki euskaltegia S.C.L.	4.984,20
Urrats euskaltegia s.coop.ltda.	8.671,62
Euskaraz Koop. E.	22.865,30
Emun Koop. E.	11.515,54
Herri Jakintza	2.570,40
Pasaiako UE-Fundación Pública Pasaiako UE	1.168,20
Azpeitiko Euskara Patronatua	887,04
Maizpide Euskaltegia-Lazkao	13.527,56
Urtxintxa Eskola-Gipuzkoa	4.825,07
Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa	8.256,44

BIZKAIA

EUSKALTEGIA	DIRU-LAGUNTZA
Aula de cultura de Getxo (Getxoko UE)	3.265,90
Enkarterrietako UE	3.716,64
Txorierriko UE	186,44
Sopelanako UE	1.215,00
Leioako UE-Mastitxu euskaltegia	1.237,50
Portugaleteko UE	2.100,00
Trapagarango UE	810,88
Sestaoko UE	826,56
Erandioko UE	303,60
Barakaldoko Euskara Udal Erakundea	4.353,90
Basauriko UE	4.217,21
Durangoko UE	1.446,40
Santurtziko UE	3.932,72
Amorebieta-Etxanoko UE	342,39
Mungiako UE	441,00
Orixe Euskaltegia S.A.L.-(Mikelats-Bilbo)	16.139,38
Gabriel Aresti-Txinta Koop.	80.276,88
Euskaraz Koop. E.	45.946,39
Arrigorriagako UE	282,00
Aurten Bai-Zornotzako Barnetegia	36.654,81
Juan Mateo Zabala euskaltegia	29.717,68
Bilbo Zaharra euskaltegia	34.329,61
Ulibarri euskaltegia	39.875,94
Gotzon Garitaonaindia euskaltegia	2.268,00
Jose Antonio Agirre euskaltegia	1.713,00
Bilboko Labayru-Inst. Diocesano E.J. Labayru E	5.652,25
Euskal Irakaslegoa - Deustu unibert.	12.600,90